

LORETOPETIK ▶ MAIXABEL GAZTAÑAGA (IRAKASLEA)

## Txanponaren alde biak



Udal agintariak aurtengo Aste Nagusia «partehartzailer», «ireki» eta «ekologiko» hitzez definitu dute. Hitz politikak, denen ahotan dabilzanak, baina askotan bezala, agintari eta hainbat herritarrentzat, esanahi desberdina dutenak. Hurrengorako utziko dut horretaz hitz egiteko tartea, eta gaurko honetan, igandearen Aste Nagusia era ofizialean hasi aurretik Donostian suertatutakoak eta haiei buruz

gure agintariak esandakoak gogora ekarri nahi ditut.

Alkate jaunak garbi azaldu zuen ez zegoela ados festak politizatzearekin. Alkate jaunari ahaztu egiten zaio herritar askok politika egiteko bideak Udaleran bertan ixita dituztela, beraien ordezkariak Udaletik kanpora daudela... Herritar horiei geratzen zaie bide bakarra haien aldarrikapenak kalera ateratzea da, eta hori ere zapuztu nahi izan dute.

Hiria festa aurretik ertzainez leporaino betetzea eta egoera hau normalizat jotzea ez al da festak politizatzea? Edo, agian, festak polizializatzea izango al da? Zer esan eta egiten du alkate jau-

nak herritar hauen oinarrizko eskubide demokratikoak urte osoan berma daitezun? Herritar hauen eskaerei igandearen emandako erantzuna al da bidea?

Martxa Parte Zaharretik barrena burutu zen, Zuloaga plazan amaitzeko, eta aurreko urteetan bezala, presoen aldeko brindisera. Sarriegi plazara abiatu zen jendea. Ondoren hasi ziren istiluak; Ertzaintzak inongo neuririk gabe Parte Zaharrean zegoen jende ororen aurka ekin zuen. Aldez aurretik, martxa egiten ari zen bitartean garbi eta ozen jakinarazi zieten herritarrei inguru hura gune arriskutsua zela.

Igandearen ohiko bihurtu den gure herriko agintari batzuen jokabidea garbi

ikusitua gertatu da. Txanponaren bi aldeak alegia; bata, martxa egiten uztea eta bestea, ondorengo gertakariari bide ematea.

Parte Zaharrean zegoen jende guztia susmagarri zen, beraz; denen aurka ekin behar zuten. Pilotak etengabe botatzen zituzten, jendea tabernetatik atera eta jipoitu egiten zuten, soinean ikurriera eramatea ere susmagarria zen... Hauek gertatutako adibide batzuk besterik ez dira. Garai berriak zaharrak ote?

Nork eskatuko du Ertzaintzaren jokabidea azter dezaten? Beraien alboan zihoazen kazetariak prest egongo al lirateke ikusitakoaren testigantza emateko? Benetan larria eta kezagarria, azken aldiaren gure agintariak Ertzaintzaren jokabidearen inguruan daramaten politika.

UDAKO IKASTAROAK ▶ 'HAIKA MUTIL' FILMA

## Laboari buruzko erretratoa

Imanol Uriberen 'Haika mutil' filma aurkeztu dute Udako Ikastaroetan; Mikel Laboaren lana goraipatu dute

NAGORE IRASTORZA

Bernardo Atxagak ondorengo hitzekin definitu zuen atzo Mikel Laboa kantariaren ibilbidea: «Artista guztiek burugogor behar dute izan. Mikel idiak baino burugogorragoa izan da beti. Bere ildoak jorratu du, nahi duen ibilbidea jarraitu du». EHUren Udako Ikastaroetan, *Obaba izeneko Unibertsitatea* ikastaroa hasi zen atzo, eta bertan, Imanol Uriberen *Haika mutil* filma aurkeztu zuten. Mikel Laboari buruzko lana da; kantariaren «erretorik edere-rena», Atxagaren hitzetan.

*Autor por autor* proiektuaren harira, Imanol Uribe Mikel Laboari buruzko filma errodaztea erabaki zuen. Proiektua, finen, zinema zuzendari batek musikari bati buruzko filma egitea da. Pilar Mirók esaterako, Victor Manuel hautatu zuen. Xabier Agirresarobe kamera atzean eta Bernardo Atxagaren hitzez hornitua, filmak Mikel Laboaren lanaren unibertsaltasuna euskal mugetatik kanpora ezagutzeko aukera eskaini nahi du.

Ahots goxoz kantatutako abestiak tartekatzen dira Uriberen filmean. Eta bitartean, Atxagak kantari donostiarrar-

ren ibilbidea eta ezaugarriak aipatzen ditu. *Ez dok amairu* taldeak Euskal Herrian izandako eragina ukaezina dela eta Laboa ideologia jakin baten ikur izan zitekeela dio Atxagak filmean. «Esperimentazioak, abangoardiako apustuak, bere bidea egin nahi izanak bide horretatik baztertu zuen, ordea».

### Ispiluaren beharra

Idazleak Laboa euskaldunon aita dela esan zuen, atzoko aurkezpenean. «Nork bere burua ikusteko, beste baten ispiluaren beharra du, baina sarritan beste aldean ez dago ispilu gisa baliagarria izango den inor. Hori gertatu zen gerra garaian. Mikel Laboa eta gainontzeko kantariak abesten hasi zirenean, irudi bat berreskuratzen zuten, eta guri existentzia eman ziguten. Haien seme-alabak gara gu».

Hainbat pasadizo ere tartekatzen ditu Atxagak filmaren gidioan. Mozkor batek taberna batean esandakoa gogoratzen du, adibidez: «Mikel Laboa ez da kantaria, garraiolaria da, kantua bakoitzarekin norabaitera garraiatzen baikatuz». Ideia horretatik abiatuz, Laboa «du-



Bernardo Atxaga eta Mikel Laboa, 'Haika mutil' filmaren aurkezpenean. NAGORE IRASTORZA

rrina bezala» dela gaineratzen du Atxagak, «usainduz gero, beste garai bat bizi araztera eramaten baitzaitu».

### Euskararen irudia eraikitzen

Filmaren aurkezpenearen ondoren, Atxagak eta Laboak kantari donostiarraren ibilbidea errepatatu zuten, bertan bildutako galderei erantzunez. Laboak hasiera gogorarazi zuen. «36ko gerraren ondoren, basamortu kultural batean bizi ginen, eta euskararen irudi berria eraiki nahi genuen. Zerbait egiteko aukera ikusi genuen *Ez dok amairu* taldea sortuz».

Berreskuratze hori egitega-

### MIKEL LABOA ▶ KANTARIA

«Gerraren ondoren, basamortu kultural batean bizi ginen eta euskararen irudi berria eraiki nahi genuen»

atik ezezik, atsegin zuelako ere kantatzen zuela gehitu zuen Laboak. Bestalde, berreskuratzea baino, «antzerkiarekin eta hizkuntzaren hotsekin jokatzea izan da, bere lanean, garraiztsuen», nabarmendu zuen Atxagak.

Kantatzen duenean zer sentitzen duen galdetu zioten Mi-

«Nik, benetan, hitzek eta doinuek daramaten karga transmititu nahi diot entzulegoari»

kel Laboari. «Sarritan ez dut ezer nabaritzen. Hitzek eta doinuek nahikoa karga dute eta nik, benetan, haiek daramaten karga transmititu nahi diot entzulegoari». Atxagak Laboaren hitzak osatu zituen. «Mikelen jardueraren dena da erriuala. Pausoak, jarrera... dena dago esaten duenaren zerbitzuan».